


Informazio gida

LAN-ISTRIPIUA

ATZERRIAN



Langile batek atzerrira bidaia egin behar badu lan kontuak direla eta, enpresak tramite batzuk bete beharke ditu irteera gertatu baino lehen. Mutualiaren Nazioartekotze Zerbitzuak aurkezten dizkizuegu, bidaiaren aurretiko **jarraibideak** jakin ditzazuen, baita atzerrian lan-istripu bat izanez gero eman beharreko pausuak gogoan izan ditzazuen ere.






Bidaiatu aurretik

12 hilabetetik beherako egonaldiak

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian tramitatu beharreko dokumentazioa:

- ✓ **E-101 inprimakia.** “Aplikagarri den legediaren ziurtagiria”. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko administrazioek egiten dute; ez da beharrezkoa enpresak aurrez betetzea.
- ✓ **TA300 inprimakia.** Enpresa batek bere langileetako bat lanera aldi baterako beste herrialde batera bidaltzen duenean beteko da, eta, Gizarte Segurantzako nazioarteko arauak aplikatuz, Gizarte Segurantzaren esparruko Espainiako legedia aplika daitekeenean. Halaber, horrelaxe jokatu da langile bat bere jarduera garatzeko bere kontura aldi baterako beste herrialde batera joaten denean ere, eta, betiere, aplikagarri den nazioarteko araudiaren arabera, Norberaren Konturako Langileen Erregimen Berezian alta emanda jarrai dezakeenean. Europar Batasuneko, Europako Esparru Ekonomikoko eta Suitzako zenbait herrialdetan aldi berean edo txandaka besteren kontura edo norberaren kontura lan egiten duten kasuan ere beteko da.
- ✓ **Europako Osasun Txartela** (EOT).




12 hilabetetik gorako egonaldiak

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian tramitatu beharreko dokumentazioa:


✓ **E-102 inprimakia.** “Soldatarik gabeko jarduera edo lekualdaketa luzatzea”, lau aletan (besteren kontura lan egiten duten langileentzat), edo hiru aletan (norberaren konturako langileentzat); eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusira edo enpleguaren herrialdean izendatutako erakundera igorriko da. Hark, aldi berean, inprimakiaren B zatian bere adostasuna adierazi ondoren, bi ale itzuliko dizkio eskaria egin duen enpresaburuari, edota bat norberaren konturako langileari, eta bestea Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari igorriko dio, Espainian xede horretarako izendatutako erakunde den aldetik.

✓ **Europako Osasun Txartela** (EOT).



Beste lekualdaketa batzuk eta kasu bereziak

Begiratu [Gizarte Segurantzaren webgunean](#).



Non eskatu Europako Osasun Txartela



Gizarte Segurantzaren [egoitza elektronikoan](#).



Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Zentroetako edozeinetan, aurretiaz hitzordua eskatuta, edo Itsasoko Gizarte Institutuko probintziako edo tokiko zuzendaritzetan.



901 16 65 65 astelehenetik ostiralera, 9:00-20:00.



Lan-istripua atzerrian

Zer egin atzerrian lan-istripua izanez gero



Osasun arreta eskatu **+34 94 425 63 98**



Bidali laguntza-zerbitzuaren partea hona **asistenciasanitariaexterna@mutualia.es**, eta zehaztu zein herrialdetan gertatu den lan-istripua.



Zoaz osasun-zentro publiko batera, **Europako Osasun Txartela**rekin (EOT). Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian eskura daiteke.



Edozein zalantza sortu edo zerbait kontsultatu nahi izanez gero, jarri harremanetan Kanpoko Baliabideen Sailarekin **+34 94 425 25 86** edo zure kudeatzaile pertsonalarekin.



Delta sistemaren bidez jakinarazi: laneko istripua bajarik gabe bada, hurrengo hilabeteko lehen bost egunetan. Laneko istripua bajarekin bada, istripu-egunaren ondorengo bost astegunetan.

Europar Batasuneko kide diren herrialdeetan, Europako Esparru Ekonomikoan, Suitzan, Espainiarekin osasun-laguntza barnean hartzen duen aldebiko hitzarmena dutenetan

Europako Esparru Ekonomikoa (EEE): Islandia, Liechtenstein eta Norvegia.

Espainiarekin osasun-laguntza barnean hartzen duen aldebiko hitzarmena dutenetan (Andorra, Brasil, Txile, Maroko*, Peru*, Tunisia*). Maroko*, Peru*, Tunisia*: hiru herrialde horietan, aseguru/enplegua Espainian duten eta beren herrialdera lekualdatu diren langile nazionalentzat soilik aurreikusten da osasun-laguntza.

✓ Lehenatasunez, **zentro publikoetara** jo (mutualitateko telefono bidezko arreta-zerbitzuan adierazitakoetara).

✓ **Europako Osasun Txartela (EOT)** aurkeztu.

Langileak **ez du ordaindu behar jasotako laguntza-zerbitzua**. Zenbait herrialdetan, hala nola Frantzia, koordainketa deritzona dute osasun-zerbitzuetan, % 20 ingurukoa; enpresak aurreratuko du kostua, ondoren mutualitateak ordainduko badu ere, aurrez dokumentazioa aurkeztuz gero.


Sor daitezkeen egoerak



Langilea **zentro publikora** joatea eta ez aurkeztea Europako Osasun Txartela: langileak edo enpresak ordainduko du faktura, gero mutualitateak ordainduko badu ere, aurrez dokumentazioa aurkeztuz gero.



Langileak **zentro pribatu batera** jotzea (EOT aurkeztuz edo ez): emandako laguntza-zerbitzua ordaintzea langileari edo enpresari dagokio, eta ez zaio itzuliko, aurrez mutualitateak horretarako baimena eman ezean. Bizitza arriskuan den larrialdi kasuak salbuespentzat hartuko dira.



Espainiarekin Gizarte Segurantzaren esparruan aldebiko hitzarmena duten herrialdeetan, baina osasun-laguntza barnean hartu gabe

Argentina, Australia, Kanada, Kolonbia, Estatu Batuak, Filipinak, Japonia, Maroko (nazionalitate horretako langileen kasuan izan ezik), Mexiko, Paraguai, Dominikar Errepublikak, Errusia, Tunisia (tunisiar nazionalitateko langileen kasuan izan ezik), Turkia, Ukraina, Uruguai.


Munduko gainerako herrialdeak, Gizarte Segurantzaren esparruan Espainiarekin hitzarmenik ez dutenak.

- ✓ Lehenetasunez, **zentro publikoetara jo** (mutualitateko telefono bidezko arreta-zerbitzuan adierazitakoetara).
- ✓ Jasotako laguntza zerbitzuaren **zenbatekoa ordaindu**.
- ✓ Laguntza medikoa egiaztatzen duen agiria aurkeztu eta gero, mutualitateari eskatu **ordaindutakoa itzultzeko**, laneko kontingentzia egiaztatu ondoren.



Mutualitatearen gomendioak

GOMENDIOAK



- ✔ Kontingentzia profesionalen estaldura du mutualitateak (lan-istripuak eta laneko gaixotasunak); baina, kontingentzia arruntren prozesuetarako, enpresek langileentzat **aseguru pribatua** izatea gomendatzen da.
- ✔ Langileak gaixotasun endemikoak izan ditzaketen herrialdeetara bidaltzen dituzten enpresen kasuan, jar zaitez harremanetan zure Prebentzio Zerbitzuarekin, eman daitezkeen **txertoen berri** izateko.
- ✔ Langileak eraman dezala Bezeroentzako 24 orduko Arreta Zerbitzuko 900 50 60 70 linea duen txartela; bertan ageri da atzerritik egiten diren deietarako telefono-zenbakia: **+34 944256398**.



Sortu ohi diren galderak

- **Norengana jo behar dut langile batek atzerrian istripua izaten badu?**
Telefono honetara: +34 94 425 63 98. Zalantzaren bat sortuz gero edo kontsultaren bat egiteko, jo Mutualiako Kanpoko Baliabideen Sailera, edo zure kudeatzaile pertsonalarengana.
- **Laguntzari dagokion partea bidali behar diot mutualitateari, gertatutakoa azaltzeko, edo bestelako dokumenturen bat igorri behar diot?**
Bai, laguntzari dagokion partea bidali behar da, hona: asistenciasanitariaexterna@mutualia.es
- **Osasun-prestazioek edota prestazio ekonomikoek estaldura dute munduko edozein herrialdetan?**
Bai.
- **Autonomoa banaiz eta mutualitatean kontingentzia profesionalen estaldura badut, estaldura dut osasun-arloan eta arlo ekonomikoan?**
Bai.

- **Atzerrian gertatutako istripuak DELTA sistemaren bidez izapidetu behar dira? Epe berak dituzte?**
Bai. Istripua bajarekin bada, istripua gertatu zen edo medikuaren bajaren egunaren hurrengotik hasita ondorengo 5 astegunetan. Istripua bajarik gabe bada, hurrengo hilabeteko lehen bost egunetan (hilabetea amaituta).
- **Istripua larria edo oso larria bada, Lan Agintaritzari jakinarazi behar zaio (istripuaren ondorengo 24 orduetan)?**
Bai.
- **Europako Ekonomia Erkidegoko edo Esparruko herrialde batean edo Gizarte Segurantzarekiko alde biko hitzarmena duen batean izan bada lan-istripua, eta zentro pribatu batera joz gero, laguntzaren kostua enpresak edo langileak aurreratu behar du?**
Bai, eta gero eskatu behar zaio mutualitateari; baina gerta daiteke ez itzultzea, bizitza arriskuan zen larrialdi kasu bat ez bada.
- **Zentro pribatu batera joz gero, faktura gure gain hartuko dugu mutualitatean?**
Bai, Mutualiak bere gain hartuko du.
Baina zein kasutan? Larrialdi kasuetan soilik, edo kasu guztietan?
+34 944256398 lineara deitzen dugunean adierazitako zentroetara jo behar dugu, ez edozein zentro pribatutara.

- **Lan-istripu batean, langilea Europako Osasun Txartelik gabe (EOT) joaten bada zentro publiko batera, aurreratu egin behar du laguntza-zerbitzuaren kostua?**

Bai.

- **Lan-istripua ez bada eta zerbitzua eman bazaio aseguru pribaturik izan gabe, nori eska diezaioke laguntza-zerbitzuaren kostua itzultzea?**

Gizarte Segurantzari eskatzen ahalegindu daiteke.

- **Lan-istripuen kasuan, zer agiri aurkeztu behar dira zerbitzua jasoko duen zentro publikoan, laguntza-zerbitzu hori kobra ez diezaioten?**

Europako Osasun Txartela (EOT).

- **Laguntza-kostua aurreratu bada, zer agiri aurkeztu behar zaizkio mutualitateari?**

Zerbitzua eman zioten ospitaleak emandako jatorrizko fakturak, hara joateko garraioari dagozkionak (autobusa, metroa, taxia...)

- **Langile batek istripu larria izaten badu eta denbora luzez ospitalean egon behar badu, mutualitateak ordaintzen du senitarteko bat istripua izan den herrialdera joateak dakarren kostua? Horrela bada, ostatua, otorduak edota ospitalerako garraioa ordaintzen dizkio?**
Gastu horiek Prestazio Berezien Batzordearen bidez bideratzen dira, eta eskaria egin behar da.
- **Aberriratzea: Atzerrian baja medikoan dagoen langile batek bere herrialdera itzuli nahi badu eta mutuako osasun-langileek ez badute baimenik eman, lekualdatze hori estaliko luke mutuak?**


EZ, Mutualiako mediku-zerbitzuaren baimenik izan gabe ez dira estaliko lekualdatzearen edo aberriratzearen gastuak. Mutualiako mediku-zerbitzuak lekualdatzea egokia dela adierazi badu eta hura baimendu badu bakarrik estaliko dira lekualdatzearen gastuak.

*Itsas eta arrantza-sektoreari dagokionez, arrantzaren sektoreko lan-baldintzetan hobekuntzak ezartzen dituen ekainaren 30eko 618/2020 Errege Dekretuaren 4.1 d) eta 4.2 artikuluetan adierazitakoari jarraituz:


Mutualiak lekualdatzearen edo aberriratzearen gastuak estaliko ditu, betiere mediku-zerbitzuak horretarako baimena ematen badu eta beharrezkotzat jotzen badu. Gastu horiek arreta medikoko prozesuaren parte gisa ordainduko dira; beharrezkoa izango da medikuaren agindua. Gainera, mutuak erabakiko du zer garraiobide erabiliko den eta noiz den lekualdatzeko une egokia. Mutualiak antolatutako eta alde zuzenetik baimendutako ebakuazioak bakarrik estaliko dira.

● **Zer kostu du osasun-laguntzak atzerrian?**

Ez du kostu gehigarrik, Gizarte Segurantzako kotizazioan sartzen baita, lan-istripuaren eta gaixotasun profesionalaren atalean.



AIPAMENAK



✓ Aurkezpen txantiloia:

▷ [SlidesCarnival](#)

✓ Argazkiak:

▷ [Pexels](#)

Informazio gida

LAN-ISTRIPIUA

ATZERRIAN

